

## **SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK**

GU BAI GURASO BERRITSUAK

**ZAINDU EUSKARAREKIN HARREMANA,  
EUSKARA ERAKARGARRIA IZAN DADILA**

**Gure seme-alabentzat ona izango da hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea.**

Ikasten ditugun hizkuntzak gure egiten ditugu, baina hizkuntza bakoitzarekin harreman ezberdina dugunez ezberdin bizitzen ditugu. Guztiak izan daitezke positiboak eta aberatsak guretzat, baina hizkuntza horiekin dugun harremana zaindu egin behar dugu horrela izan dadin.

Euskara ez da txikia: milioi bat hiztun inguru ditu eta munduko hizkuntzen artean nahiko handia ere bada. Euskara ez da ahula: hainbat urrats eman dira euskara normalizatzeko bidean, eta lan munduan adibidez, azken urteetan gero eta erabilera handiagoa du. Euskara ez da zaila: hurrek erraz ikasten dute edozein hizkuntza ikaste prozesua erabileratik hasten delako, helduontzako izaten da zailagoa hizkuntzak ikastea.

Gainera, euskaraz gauza asko eta anitzak sortzen dira musika munduan, artean eta beste hainbat arlotan. Ikerketak egiten dira euskaraz, prentsa ere bai, sare sozialetan erabiltzen da, eta abar.

Baina hurrek modu horretako balioekin lotzen al dute euskara? Lagundu behar diegu euskara ere beraientzat modernoa, indartsua, erakargarria, aberatsa eta baliagarria izan dadin. Horrek eragina izango du hizkuntzarekiko jarreretan eta jokabideetan.

## Zer egin dezakegu?

- Euskal kulturarekin harremanetan jartzea
- Eredu izatea eta gure jarrerren bidez laguntzea

### Euskal kulturarekin harremanetan jartzea

---

Euskaraz gauza asko eta ezberdinak sortzen dira. Horietako hainbat haurrei begirakoak edo haurrentzat ere egokiak direnak: musika, antzerkia, komikiak, aldizkariak, webguneak eta abar.

Horiek ezagutzeak eta horietan parte hartzeak asko lagunduko die euskara ere gauza erakargarri eta gustukoekin lotzen.

#### Adibidez:

- Euskaraz diren ekitaldietara joatea
- Etxean eta kotxean euskarazko musika jartzea
- Euskarazko liburuak eskura jartzea eta aldizkarietara harpidetza egitea.
- Euskarazko produktuak oparitzea.
- Lehiaketetan parte hartzea gonbidatzea: Harrapazank, Izarren distira, literatur lehiaketak, bertso paper lehiaketak eta abar.
- Euskararen aldeko ekimenetan parte hartzea: Korrika, Euskararen Eguna...
- Eta abar.

### Eredu izatea eta gure jarrerren bidez laguntzea

---

Gure seme-alabek euskara balio indartsu eta erakargarriekin lotzeko modu eraginkorrenetako bat gurasook (eta inguruko beste hainbat heldu) eredu izatea da. Guretzat euskara baliagarria eta erakargarria dela ikusiko dute guk euskarazko prentsa irakurtzen badugu, telebista euskaraz ere ikusten badugu edota euskarazko ekitaldietarako joaten bagara, eta abar. Gure bizitzan euskarak leku duina baldin badu hori transmitituko diegu eta beraiek horrela bizitzea errazagoa izango da.

## **Eragile eta protagonista izan daitezen gonbidatzea**

---

*Idea osagarri moduan, kontuan har dezakegu eragile izateko aukera. Hau da, euskaraz diren giroetan edota euskararen aldeko ekimenetan eragile izan daitezen ere gonbidatu ditzakegu. Batez ere hamar urtetik gorako haurren kasuan eta nerabeen kasuan eraginkorra da euskara balio indartsuekin lotzera begira eta euskararekiko jarrerak indartzera begira.*

### **Adibidez:**

- *Ikastetxeko ikasleen euskara taldean parte hartzea: ekitaldiak antolatzea, txikiagoentzat jarduerak antolatzea eta abar.*
- *Euskararen egunean ekitaldiren batean laguntzea: ekitaldietan parte hartzea, guraso edo begiraleen laguntzaz ardura txikiren bat hartzea eta abar.*